

## Beste Iragarki Ofizial Batzuk

### INDUSTRIA MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

IRAGARKIA, 2002ko otsailaren 18ko, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Arabako Lurralde de Bulegoko buruarena. Honen bitartez, jendauurrean jartzen dira ondorengo instalazio elektriko honen argibideak: Menagaraiko (La Petarache auzoa, Aiarako udalerria) transformazio zentro baten eta 13,2 kV-ko aireko linea elektriko baten argibideak.

8202

### MUNGIAKO UDALA

IRAGARKIA, BI-2121 errepidea (Mungia-Gernika, Aritz Bidea kaletik Gaminera bitarteko zatia) konpondu eta egokitzeko Arau Subsidiarioen alda-keta hasieran onartzeari buruzkoa.

8205

## Pribatuen Iragarkiak

### BILBOKO «EMILIO CAMPUZANO» BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

IRAGARKIA, teknikari espezialista titulu bat (Adarra: kimika espezialitatea: analisiak eta oinarritzko prozesuak) galdu dela argitara ematen dueña.

8205

## Xedapen Orokorrak

### LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA

### Zk-2740

90/2002 DEKRETUA, apirilaren 23ko, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa ezartzeko dekretua aldatzekoa.

Azaroaren 20ko 306/2001 Dekretu bidez, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa ezarri zen.

## Otros Anuncios Oficiales

### DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

ANUNCIO de 18 de febrero de 2002, del Jefe de la Oficina Territorial de Álava del Departamento de Industria Comercio y Turismo, por el que se somete a información pública línea eléctrica aérea a 13,2 kV. y centro de transformación de 100 KVA en Menagaray, Barrio La Petarache, en el término municipal de Ayala.

8202

### AYUNTAMIENTO DE MUNGIA

ANUNCIO relativo a la aprobación inicial de la Modificación de las Normas Subsidiarias para la mejora y acondicionamiento de la carrera BI-2121 (Mungia-Gernika, en el tramo comprendido entre Aritz Bidea y el término Municipal de Gamiz).

8205

## Anuncios Particulares

### INSTITUTO DE EDUCACIÓN SECUNDARIA «EMILIO CAMPUZANO» DE BILBAO

ANUNCIO por el que se hace público el extravío del Título de Técnico Especialista (Rama: Química-Especialidad: Análisis y Procesos Básicos).

8205

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

### Nº-2740

DECRETO 90/2002, de 23 de abril, de modificación del Decreto por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente.

Mediante Decreto 306/2001, de 20 de noviembre, se estableció la estructura orgánica del Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente.

Arabako Foru Aldundiak 2001eko azaroaren 11n aipatutako dekretua aldatzeko eskea egitea ebatzi zuen, Ebazpen Batzordea erregulatzen duen ekainaren 30eko 1994/13 Legearen 58 artikulan xedatutakoaren babespean, ustez eskumen banaketaren ordena ez baitzuen gordetzen bi puntu zehatzetan: a) aipatu Sailaren eraginpeko alor gisa «basoa eta izadia zaintzeko zerbitzua» esleitzeari dagokiona; b) ‘Natura 2000’ Europako sare ekologikoaren barruan dauden Garrantzi Komunitarioko tokiak proposatu eta kudeatzea» betekizuna Biodibertsitatearen Zuzendaritzari esleitu izana, Arabako Lurralde Historikoak babespeko naturguneen administrazio nahiz kudeaketarako dituen eskuduntzak beren-beregi aipatu gabe.

Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2002ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, aipatutako eskea partzialki baiestea erabaki zuen.

Aipatu Erabakian adierazitakoarekin bat, bidezkoa da aipatutako egitura organikoko Dekretua aldaraztea eta 306/2001 Dekretuko 1. artikulan nahiz sarreran jasotzen zen «eta basogintza zerbitzua» ezabatzea, Lurralde Historikoei dagozkien eskuduntza baita; hala nola, babes klausula bat sartea, Ekainaren 30eko 16/1994 EAEko Naturaren Kontserbaziorako Legearen 13. eta 25. artikuluek aipatzen dituzten babespeko naturguneen administrazioa nahiz kudeaketari dagokionez, Lurralde Historikoen foru organoen eskumenekoak direnak.

Horren ondorioz, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailbururen proposamenez, lehendakariak onartu eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2002ko apirilaren 23an burututako batzarraldian aztertu eta onartu ondoren

#### XEDATU DUT:

**Lebenengo artikulua.**— Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 20ko 306/2001 Dekretuko 1. artikulutik eta sarreratik, «eta basogintza zerbitzua» esamoldea ezabatzen da, aipatutako Sailari dagokion jardute-eremu gisa.

**Bigarren artikulua.**— Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 20ko 306/2001 Dekretuko 11. artikuluko f letra aldarazten da, Dekretua honela taiututa geratzen delarik:

«f) ‘Natura 2000’ Europako sare ekologikoaren barruan dauden Garrantzi Komunitarioko tokiak proposatu eta kudeatzea, EAEko Naturaren Kontserbaziorako ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 13. eta 25. artikuluek aipatzen dituzten babespeko naturguneen kudeaketarako Lurralde Historikoetako foru organoek dituzten eskuduntzen kaltetan gabe».

Con fecha 11 de diciembre de 2001 la Diputación Foral de Alava acordó formular requerimiento en orden a la modificación del citado Decreto, al amparo de lo dispuesto en el artículo 58 de la Ley 13/1994, de 30 de junio, reguladora de la Comisión Arbitral, por entender que no respetaba el orden de distribución competencias en dos extremos concretos: a) el relativo a la atribución del «servicio forestal y de conservación de la naturaleza» como área de actuación de dicho Departamento; b) la atribución a la Dirección de Biodiversidad de la función de «proponer y gestionar los lugares de Importancia Comunitaria que se integren en la Red Ecológica Europea ‘Natura 2000’», sin hacer expresa mención de las competencias que para la administración y gestión de los espacios naturales protegidos detenta el Territorio Histórico de Alava.

En sesión de 8 de enero de 2002 el Consejo de Gobierno acordó estimar parcialmente el citado requerimiento.

De conformidad a lo expresado en el mencionado Acuerdo, procede modificar el mencionado Decreto de estructura orgánica y suprimir la expresión «y servicio forestal» que se contenía en el preámbulo y en el artículo 1 del Decreto 306/2001, por ser una competencia que corresponde a los Territorios Históricos, así como introducir una cláusula de salvaguarda en relación a la administración y gestión de los espacios naturales protegidos a que se refieren los artículos 13 y 25 de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, extremos que son competencia de los órganos forales de los Territorios Históricos.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, previa aprobación del Lehendakari, y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en sesión celebrada el día 23 de abril de 2002,

#### DISPONGO:

**Artículo primero.**— Se suprime del preámbulo y del artículo 1 del Decreto 306/2001, de 20 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, la expresión «y servicio forestal» como área de actuación que corresponde al citado Departamento.

**Artículo segundo.**— Se modifica la letra f) del artículo 11 del Decreto 306/2001, de 20 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, que queda redactado de la siguiente manera:

«f) Proponer y gestionar los lugares de Importancia Comunitaria que se integren en la Red ecológica europea ‘Natura 2000’, sin perjuicio de las competencias de los órganos forales de los Territorios Históricos en la gestión de los espacios naturales protegidos a que se refieren los artículos 13 y 25 de la ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco»

**AZKEN XEDAPEN BAKARRA**

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2002ko apirilaren 23an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Lurralde Antolamendu  
eta Ingurumen sailburua,  
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

**DISPOSICIÓN FINAL ÚNICA**

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 23 de abril de 2002.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Ordenación del Territorio  
y Medio Ambiente,  
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

## **Agintariak eta Langileria**

### **Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak**

#### **HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA**

##### **Zk-2741**

AGINDUA, 2002ko apirilaren 24koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, sailburu horrek berak 2000ko uztailaren 27an emandako Agindua aldatzeko. Aginduaren bidez Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Lanbide Heziketako irakasle teknikoen eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen kidegoetako irakasle funtzionarioen lekualdatze-lehiaketaren behin betiko ebazpena argitaratu zen.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak Agindua eman zuen 2000ko martxoaren 21ean Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Lanbide Heziketako irakasle teknikoen eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen kidegoetako irakasle funtzionarioen lekualdatze-lehiaketa iragartzeko.

Behin prozesua amaituta, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak 2000ko uztailaren 27an emandako Aginduaren bitarte, Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Lanbide Heziketako irakasle teknikoen eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen kidegoetako irakasle funtzionarioen lekualdatze-lehiaketaren behin betiko ebazpena argitaratu zen.

Esleipen horren aurka, Jaione Garai Alegria andreak administrazioarekiko auzi-errekursoa ezerri zuen, eta Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiak onartu egin du errekurso hori.

## **Autoridades y Personal**

### **Nombramientos, Situaciones e Incidencias**

#### **DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**

##### **Nº-2741**

ORDEN de 24 de abril de 2002, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se modifica la Orden de 27 de julio de 2000, del mismo Consejero, por la que se hace pública la resolución definitiva del concurso de traslados de los funcionarios docentes de los Cuerpos de Profesores de Enseñanza Secundaria, Profesores Técnicos de Formación Profesional y Profesores de Escuelas Oficiales de Idiomas.

Por Orden de 21 de marzo de 2000, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, se convocó concurso de traslados entre funcionarios docentes de los Cuerpos de Profesores de Enseñanza Secundaria, Profesores Técnicos de Formación Profesional y Profesores de Escuelas Oficiales de Idiomas.

Finalizado el proceso se hizo pública, por Orden de 27 de julio de 2000, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, la resolución definitiva del concurso de traslados de los funcionarios docentes de los Cuerpos de Profesores de Enseñanza Secundaria, Profesores Técnicos de Formación Profesional y Profesores de Escuelas Oficiales de Idiomas.

Interpuesto recurso contencioso-administrativo contra la citada adjudicación por Doña Jaione Garai Alegria, el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 2 de Vitoria-Gasteiz, ha estimado dicho recurso.